IRUTXULO, 358 zk., 2002-5-24

CASARES Kultur Etxeko liburutegia



• 4 Hiri Miri • 6. Euskara: **Egunkaria besapean lasterka** • 8. Auzoz auzo • 13. Intxaurrondoko Gastronomia Astea • 29. Kirolak • 31. Kultur Leihoa: **Publizitate jaialdia** • 34 Zinema • 36. Kultur Agenda

## Gai librean




Imanol Otegi

Xabier Rubio

### Donostiako zuhaitzak

Azken aldi honetan, Donostian jazo diren zuhaitz mozketek eztabaida komunikabideetara ekarri dute. Hiri barnean tamaina eta eite handiko zuhaitz gehiegi galtzen ari dira motozerren hortzetan. Asko ez dugu bilatu behar adibide anitz aurkitzeko. Hor ditugu, esaterako: Errondokoak, Altzakoak, Ategorrietakoak, Bulebarrekoak, Zorroagakoak, Frantzia eta Mandasko Dukearen pasealekukoak eta abar luzeegi bat.

Udalak emandako azalpenak, gehienetan protesten ondorioz, ez dira oso argiak kasu batzuetan, eta beste hainbat kasutan sineskaitzak dira. Lehengoan zuhaitzen bat moztu behar bada egun batzuk lehenago jakitera emango dutela iragarri ziguten. Horrela, herritarrok txosten eta arrazoi teknikoak ezagutzeko parada izango omen dugu eta ondorioz, arrazoibideak sartzeko aukera. Ez dakit arazoak konponduko dituen, baina aurrerapausoa dirudi.

Dena den, zuhaitz gehiegi galtzen ari gara Donostian, betetzen duten papera ahaztuz. Aire araztegiak dira, zarata gutxitu egiten dute, itzala ematen digute, alaitu egiten gaituzte... Hiriko paisaia gris gogor eta stress eragile horren aurkako lasaigarri eraginkorrak dira. Askotan zuhaitz bakar batek ekosistema oso bat osatzen du eta bertan espezie ugari topa ditzakegu. Bizirik dago eta bizia ematen du, baina ez bakarrik hori. Zuhaitzek hiriko ekosisteman berebiziko garrantzia dute, biologikoa ezezik, ekologiko eta, zergatik ez, psikologikoa ere bai. Zenbat gertakizun, zenbat bizipen, zer-nolako une zoragarri, alai edo triste, ez ote ditugun pasa haien ondoan! Zuhaitzak gure oroitzapenetan daude eta gure bizitzaren zati bihurtzen ditugu, gure errealitatearen lekuko mutuak dira. Horregatik, behar ditugu eta nahi ditugu, eta horregatik ere zuhaitz baten mozketak mintzen gaitu. Zuhaitz bat mozten dutenean, gure bizitzaren zati bat galtzen ari garela iruditzen baitzaigu. Neurri batean, hala da.

Zuhaitzak balio handiko ondare dira, neurtezina: gure gurasoengandik jasotakoa askotan eta gure seme-alabek merezi dutena. Goza ditzagun!

Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ekimenez egina
BAGERA
**Pedro Egaña 2-1 esk 20006 - Donostia**
Tel.: (943) 46 71 81. Faxa: (943) 44 65 32
**e-mail:** idazkaritza@bagera.net • mintzalaguna@bagera.net

## Txulotik



# Intxaurrondo, sukalde erraldoia

Euskaldunok elkartzen garenean, derrigorrez mahai inguruan, bazkaltzeko edo afaltzeko, egin behar dugu. Topikoak halaxe dio, baina beste askotan bezalaxe, oraingoan ere topikoak egia zantzuak ditu. Gastronomia oso sustraituta dago gurean eta ez da kasualitate hutsa Euskal Herrian, eta batik bat, Donostia inguruan, sona handiko hainbeste sukaldari sortu izana. Elkarte gastronomikoak dira zaletasun horren adibideetako bat. Baita Intxaurrondoko Gastronomia Aste arrakastatsua ere. Astebetez, goi mailako sukaldaritza herritarrengana hurbilduko dute Intxaurrondon. On egin diezazuela denoi!

IRUTXULO Donostiako astekaria
**Irutxulo:** Pedro Egaña 2-1esk, 20006 Donostia.
**Argitaratzailea:** Donostiako Komunikabideak E.M., Pedro Egaña 2-1 esk. 20.006 Donostia.
**Zuzendariak:** Alex Aisa eta Alberto Irazu.
**Erredakzioa:** Ainhoa Irazu, Alex Aisa, Raul Perez, Ander Usabiaga, Aitziber Iartza eta Alberto Irazu.
Tel: (943) 46 72 36. **Faxa:** (943) 44 65 32. • **e-mail:** irutxulo@bagera.net. **Argazkilaria:** Asier Pagoaga. **Diseinua:** Eneko Abrego. **Maketazioa:** Inge Mendioroz. **e-mail:** ingemendioroz@bagera.net • **Publizitatea:** Maria Albillos eta Eli Belaustegi. Tel: (943) 45 72 50 • **e-mail:** publizitatea@bagera.net **Kudeaketa:** Ane Irazu Tel: (943) 45 51 38.
**Harpidetzak:** Ernesto Ibarluzea.
**Korrespontsalak:** Alex Aisa (Igeldo), Gari Otamendi (Añorga), Aitziber Gurutzeaga (Egia), Xabier Etxabe (Gros-Ulia), Oihana Prado (Amara Berri), Borja Ruiz (Parte Zaharra), Erika Erkizia (Antigua), Laida Basurto (Bidebieta), Aitor Urkizu Azuabarrena (Martutene), Amaia Zurutuza (Intxaurrondo) eta Sara Soria (Altza eta Herrera).
**Kolaboratzaileak:** Karlos Lozano, Mattin, Sergio Basurko, R. Elorza, Aitzpea Goenaga, Harkaitz Cano, Xabier Zaldua, Felipe Juaristi, Xabier Otaegi, Ainhoa Etxebeste, Amets Arzallus, Igor Usabiaga, Martin Aramendi, Joseba Ramirez, Mikel Agoues, Iñaki Iturain, Iñaki Lazkano, Ander Lasa, Ricardo Aldarondo, Koldo Landaluze, Estibaliz Ezkerra.
**Erredakzio kontseilua:** Luis Fernandez, Iñaki Iturain, Arantxa Kaltzada, Marije Manterola, Josu Landa, Edurne Otamendi, Jone Dorronsoro, Ander Usabiaga, Alex Aisa eta Alberto Irazu.
**Tirada:** 5.000 ale. **Inprimategia:** Antza. **Lege gordailua:** SS-246/94 **ISSN:** 1134-0517.
**Copyright:** IRUTXULO Donostiako Astekaria.
**IRUTXULO**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:**
Donostiako Euskararen Udal Patronatua
Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila